

ITSASOA

Imanol Carballo

Pasai San Pedro, 17 urte

Zure begirada urdina nigan senti dezaket
haizeak kresalarekin batera dakarrela.
Gaur ere hondartzan nago eseririk zuri begira.
Hodeiak desagertzen hasiak dira hortzetik
laster agertzen hasiko diren izarrei lekua uzteko.
Izan ere, eguzkia pasioz hiltzen hasi da arratsero
bezala.

Bere barnea erretzen du maitasunez
kolore gorriska hartuz,
zure gorputz leunean odolustuz.
Zerua laranja kolorez tintatu du
eta zugan barneratzen da,
desagertzen da.

Kaioek tristeki beren heriotza kantatzen dute
etxera itzultzeko ordua iritxi dela ohartzen diren
bitartean.

Baina nik ez dut alde egiteko asmorik,
nik orain zaitut nahiago,
zure usain freskoa biziki aurpegiatzen zaidanean.
Lehen izarrak agertzen hasiak dira
herabeki distiratzen dizute,
zure edertasunarekin lotsatuak.
Laster agertuko da gauaren erregina
bere argi zuriaz
marfil hautsa zugan zabalduz,
bere edertasun mugagabearen

erakuspen miresgarri bat eginez.
Nik zu zaitut nahiago, ordea.
Gauero haizeak zure usainarekin nire ilea laztan-
tzen duelako.
Zure olatuen marrazkiek gauero
nire pasio uneak marrazten dituztelako.
Hondarrarekin bat egiten duzunean,
zure kantu lasaiak nire tristurak alaitzen dituelako.
Zure kolore sakonek gauero nire begien ilusio-dis-
tira pizten dutelako.
Zure heldutasun neurtezinak nire bihotzaren
ateak zabaltzen dituelako.
Zure sakontasunak zugan murgiltzera bultzatzen
nauelako.
Zure eta nire arimak gorputz bakar batean batu.
Zure edertasun zabala mirestea besterik gogoko ez
dudalako...

Maite zaitut Itsasoa.